

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 28eko 71/2018 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontua 2019ra luzatzeko irizpideak ezartzen dituen

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu erregimenarenak, 87. artikuluan, hau xedatzen du: "Ekitaldi bati dagokion aurrekontua ekitaldiaren hasieran artean indarrean sartu gabe baldin badago, aurreko ekitaldikoa luzatuko da, berez eta besterik gabe, harik eta berria onartu arte". Artikulu horrek oso aurreikuspen orokorrrak dakartza eta komeni da horiek garatzea bi helburu lortzeko: a) Aurrekontu jarduketarako irizpideak finkatzeko, eta b) Aurrekontu luzatuaren zuzkidurei eraginkortasun juridikoa emateko haren argitalpen ofizialaren bidez.

Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 11ko 701/2018 Erabakiaren bidez xedatu zen Arabako Biltzar Nagusietatik kentzea Arabako Lurralde Historikoko 2019ko Aurrekontua Gauzatzeko Foru Arau Proiektua. Hori dela eta, automatikoki luzatuko dira Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontu orokorrak 2019rako.

Luzapen hori aplikatzeko irizpideak arautzea da foru dekretu honen xedea. Batetik, behar adinako oreka lortu behar da, aurrekontua erakundeen jarduera bermatzen duen tresna gisa erabiliz eta Arabako Biltzar Nagusiak errespetatuz, ekitaldi ekonomikoko aurrekonturako kredituak baimentzeko eskumena duen erakunde gisa, eta bestetik, apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikotik, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenetik, Arabako Foru Aldundiari aplikatu behar zaizkion manuak betez.

Ikusi da Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeak horren inguruan egindako txostena.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da irizpideak arautzea Arabako Lurralde Historikoko 2018ko aurrekontuen luzapena aplikatzeko, 2019ko ekitaldirako luzatuko baitira, urtarrilaren 1etik hasi eta 2019ko aurrekontuak gauzatzeko foru araua indarrean jartzen den arte.

##### 2. artikulua. Aurrekontu luzapenaren araubidea

Luzatutako aurrekontuei erregimen juridiko hau aplikatu behar zaie: Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 87. artikulua jasotzen duena, 2018ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauan ezarritakoarekin osatua.

##### 3. artikulua. Aplikazio eremua

1. Foru dekretu hau Arabako Foru Aldundiari eta foru erakunde autonomoei aplikatzekoa da.
2. Foru sozietate publikoei eta foru fundazioei berentzat berariaz araututakoa aplikatuko zaie, baita abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 47.2 artikuluan xedatutakoa ere.

**4. artikulua. Luzatutako aurrekontuen zehaztapena eta zenbatekoa**

Luzatutako kredituak eta dagokien zenbatekoa Foru Gobernuaren Kontseiluak zehaztuko ditu, behar den adina aldiz, 2018ko ekitaldiko aurrekontua ixteko eragiketak aurrera egitearen arabera, bat etorritik Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 87.4 artikuluekin.

**5. artikulua. Luzatutako kredituen araubidea**

1. Luzatutako kredituek abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko aurrekontua gauzatzeari buruzkoak, xedatutako araubide loteslea izaten jarraituko dute.

2. Luzapen aldian kreditu handigarritzat hartuko dira, 2018ko ekitaldiko aurrekontuan sartuta egonik, izaera hori zeukaten ordainketa kredituak, hartan ezarritako mugaraino.

3. Ez dira luzagarriak izango, beste entitate publiko edo pribatu batzuek jasotako funtsei dagokien zenbatekoan, 2018ko ekitaldian soilik jasotzekoak ziren sarrera espezifikoekin osorik edo zati batean finantzaturiko kredituak.

**6. artikulua. Finantza eragiketen araubidea**

1. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa betetzearen, Arabako Foru Aldundiaren 2019ko zorpetze garbia zero izango da, baina bere horretan iraungo du 2018ko Ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiari emandako baimenak, ekitaldi horretarako baimendutako zenbatekotik 2018ko ekitaldian formalizatu ez zen zenbatekoan zorpetze eragiketak hitzartzeko.

2. Gainerako foru erakundeentzat baimendutako zorpetzearen eta berme ematearen muga 0,00 eurokoa izango da, ondoko paragrafoetan ezarritako salbuespenekin.

Araba Garapen Agentzia SAU foru sozietate publikoak gehienez 2.000.000,00 euroko zorpetze eragiketak hitzartu ahal izango ditu inbertsio propioak egiteko.

Halaber, Araba Garapen Agentzia SA foru sozietate publikoari baimena ematen zaio bermatzeko bere sozietate xedearekin lotuta beste entitate batzuek egiten dituzten finantzaketa eragiketak: 1.000.000,00 euro guztira.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak diruzaintzako unean uneko zailtasunei aurre egiteko behar diren finantzaketa eragiketak formalizatu ahal izango ditu. Eragiketa horien saldo biziak inoiz ezingo du gainditu Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuetako diru sarrera arruntan ehuneko 100.

4. Foru sozietate publikoek eta foru fundazioek diruzaintzako zailtasunei erantzuteko behar diren finantzaketa eragiketak egin ahal izango dituzte, baldin eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak baimena ematen badie.

5. Aurreko zenbakietan aurreikusitakoari lotuta, indarrean jarraituko dute Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko ekitaldiko Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak 5. eta 6. artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

**7. artikulua. Langileak**

Langileen kudeaketaren arloan, indarrean jarraituko dute, aplikagarriak diren heinean, abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, 2018ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzekoak, V. tituluan jasotako aurreikuspenek.

**8. artikulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea**

Arabako Foru Aldundiak eta foru erakunde autonomoek gastuak egin ahal izango dituzte ondasun eta zerbitzuak erosteko, Foru Administrazioaren funtzionamendurako eta haren esku-menak erabiltzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta programei badagozkie.

**9. artikulua. Finantza gastuak eta finantza pasiboen aldaketa**

1. Arabako Foru Aldundiak gauzatu ahal izango ditu 2019ko ekitaldia hasi aurretik baimendutako finantza eragiketei dagozkien gastuak edo ekitaldi honetan foru dekretu honen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera hitzartzen direnak.

2. Finantza eragiketa horien interes, kapital amortizazio eta gastuei dagozkien kredituak eman edo hitzartu zirenean araututako baldintzei loturik gauzatuko dira.

**10. artikulua. Diru laguntzak eta transferentziak**

1. Diru laguntza eta transferentzia izendun arruntak zein kapitalekoak gauzatzeko baldintza izango da 2018ko ekitaldiko aurrekontuan sartuta egotea.

2. Xedapen edo hitzarmenetan aitortutako diru laguntza arruntak edo kapital eragiketarakoak abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 87.3 artikuluan xedatutakoaren arabera emango dira.

3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen dituen eta aldiro jasotzekoak diren familientzako prestazio ekonomikoak eman ahal izango dira 2019ko ekitaldian, dagokien araudia aplikatuz ateratzen den zenbatekoan.

4. Arabako Foru Aldundiak transferentzia arruntak eta kapitalekoak egin ahal izango dizkie foru sektore publikoko gainerako entitateei eta berak bazkide gisa edo antzerako beste moduren batean parte hartzen duen beste entitateei.

**11. artikulua. Inbertsio errealak**

1. Arabako Foru Aldundiak eta foru erakunde autonomoek mantentze eta berritze inbertsioetako gastuak egin ahal izango dituzte.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertzen da berritze eta mantentze inbertsioetarako gastuak direla Foru Administrazioak ondo funtzionatzeko eta bere eskumenak erabiltzeko beharrezkoak direnak.

**12. artikulua. Finantza aktiboen aldaketa**

1. Arabako Foru Aldundiak ezingo du bere garaian indarrean zeuden baimenen arabera aurrez konprometitutako finantza aktiboen gastuak besterik egin. Gastu horiek 2019ko ekitaldiko eta hurrengoetako konpromisoa betetzeko behar den kopurura mugatuko dira.

2. Arabako Foru Aldundiak foru sozietate publikoen eta bera partaide den beste sozietate batzuen finantza oreka bermatzeko gastuak egin ahal izango ditu.

**13. artikulua. Arabako Biltzar Nagusiei jakinaraztea**

Luzapenaldiak dirauen bitartean, Arabako Biltzar Nagusietara informazioa bidaliko da, hain zuzen ere abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzkoak, 131. artikuluan jasotakoa.

**Lehen xedapen gehigarria**

Foru sektore publikoak 2019ko ekitaldian eskumenak hartuko balitu eta horrek luzatutako aurrekontuaren zenbatespenean eraginik balu, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak dagozkien aurrekontu aldaketak egiteko espedienteak izapidetuko lituzke, haiek behar bezala finantzatzen direla bermatzeko.

**Bigarren xedapen gehigarria**

1. Luzatutako kredituen zenbatekoaz foru dekretu honen 4. artikuluan adierazitakoa gorabehera, honako jarduketa hauek kreditu gaitzeen bitartez finantzatu ahal izango dira:

a) Arabako Foru Aldundiko eta foru erakunde autonomoetako funtzionarioen, lan kontratuko langileen, behin-behineko langileen eta goi kargudunen ordainsari osoen gehikuntza, dekretu honen 7. artikuluan ezarritako baldintzetan.

b) Kontratu edo lankidetzaren hitzarmenetako zenbatekoen eguneratzeak, baldin eta berrikusi edo eguneratu beharreko prezioak eta/edo kostuak badituzte.

c) Aurrekontua luzatu den ekitaldian oso-osorik gauzatu ez diren zerbitzuak finantzatzeko kredituen eguneratzeak.

d) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen eta aldiro jasotzekoak diren familientzako prestazio ekonomikoen eguneratzea, Foru Dekretu honen 10.3 artikuluan aurreikusitakoa.

e) Foru erakunde autonomoentzako transferentzien eta foru sozietate publikoentzako zein foru fundazioentzako eta partaidetzako erakundeentzako kreditu zuzkiduren eguneratzea, kontratu eta/edo hitzarmenen zenbatekoak eguneratzeko eta, hala behar denean, langileen gastuak handitzeko.

f) Estatuaren Administrazioari kupo gisa egitekoak diren finantza ekarpenak indarrean dauden legeak eta Itunaren Batzorde Mistoaren akordioek zehazten dituzten zenbateko eta epeetan egingo dira.

g) Euskal Autonomia Erkidegoari bere aurrekontu orokorrak finantzatzeko egitekoak diren ekarpenak indarrean dauden legeak eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren akordioek zehazten dituzten zenbateko eta epeetan egingo dira.

h) Arabako toki erakundeei Arabako Toki Erakundearen Finantzaketarako Foru Funtsetik, Obra eta Zerbitzuetarako Foru Planetik eta auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta obra txikiak gauzatzeko laguntza programetatik egitekoak diren transferentziak indarrean dagoen foru araudiak eta zerga itunduen bidezko bilketari dagokionez Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako aurreikuspenek zehazten dituzten zenbateko eta epeetan egingo dira.

i) Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duenak, 51. artikuluan aipatzen dituen itundu gabeko zergetan udalek izango dituzten partaidetzen eguneratzeak Estatu Administrazioak igortzen dituen zenbateko eta maiztasunarekin aginduko dira.

j) Finantza gastuei eta finantza pasiboen aldatetari dagokionez Arabako Foru Aldundiak dituen betebeharrak finantzatzeko kredituen eguneratzea.

k) Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiei beren finantzaketa beharrak asetzeko egitekoak diren transferentziak, aplikatzekoak diren arauak jarraituz egingo dira.

l) Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusiak hautatzeko 2019ko haustekunde prozesuaren gastuak, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako haustekundeak arautzen dituen martxoaren 27ko 1/1987 Legearen eta Hauteskundearen Araubide Orkorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren arabera.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kreditu gaitzeak ofizios egingo ditu Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, eta Arabako Foru Aldundiaren sarrera aurreikuspenen (edo kasuan kasuko foru erakunde autonomoaren gehieneko sarrera aurreikuspenen) eta foru dekretu honetako irizpide eta printzipioei jarraituz luzatutako gastu kredituen zenbatekoaren arteko diferentziaren kargura finantzatuko dira.

#### Hirugarren xedapen gehigarria

Indarrean jarraituko dute Arabako Lurralde Historikoen 2018ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan jasotako aurreikuspenek.

#### Laugarren xedapen gehigarria

2019ko ekitaldian, foru sozietatu publiko eta foru fundazioek diru laguntzak eman ahal izango dituzte foru dekretu honetako 10. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Azken xedapenetako lehena

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetatik bigarrena

Foru Dekretu hau ALHAOnn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoa izango da, aurrekontu luzapenak dirauen bitartean.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 28a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Finantza eta Aurrekontu zuzendaria*

**IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA**